Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko irailaren 14a, osteguna 176 Jueves, a 14 de septiembre de 2017

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Itsasondoko HAPOren aldaketari buruzko ingurumen txosten estrategikoa, industriako lurzoru urbanizagarriko sektoreari dagokiona.*

1. *Aurrekariak.*

Itsasondoko Udala hiri antolaketako plan orokorraren (HAPO) aldaketa puntuala izapidetzen hasi da. Aldaketa Industriako Lurzoru Urbanizagarriko Sektoreari dagokio.

Aldaketa horri dagokionez, 2016ko azaroaren 25ean, Itsasondoko Udalak idatzi bat aurkeztu zuen, hartara, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 5.2 artikuluak xedatzen duenari jarraikiz, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek erabaki dezan ingurumen ebaluazio estrategiko bat egin behar den edo ez, 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren III. eranskinak ezartzen dituen irizpideak aplikatuta eta eragiten dien administrazio publikoei kontsulta egin ondoren. Idatziarekin batera dokumentu bat zetorren. Bertan biltzen ziren aldaketaren helburuak, aplikazio eremua eta haren azalpena, eta aurreikusten diren ekintzak eta haien kokapenak.

Itsasondoko Udalari erantzute aldera, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.d artikuluak ezartzen duenari jarraikiz, ingurumen organo honek ebaluazio hau ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedurapean jarri du, eta horretarako lege horren 29. artikulutik 32. artikulura ezartzen duena jarraitu du.

Prozedura horren bidez, ingurumen organoak kontsultak egin behar dizkie aldaketak eragiten dien administrazio, pertsona eta erakundeei, eta kontsulta horien emaitzak edukita, ingurumen txosten estrategiko bat eman behar du, non zehaztuko baitu, 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraikiz, aldaketak eragin nabarmenak sortzen ote dituen ingurumenaren gainean eta, hortaz, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta behar duen edo ez, txostenak berak ezartzen dituen terminoetan.

2. *Kontsulta administrazio eta pertsona interesdunei eta jendeari oro har.*

21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz, eta aldaketaren ezaugarriei eta aldaketak hartzen duen lurralde esparruari buruzko informazioa oinarri hartuta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak interesa izan dezaketen administrazioak eta organizazioak identifikatu ditu eta kontsulta egin die. Horiei, organo sustatzaileak idatzitako kontsultetarako ingurumen dokumentua bidali zaie:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia (GFA).

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico de la modificación del PGOU de Itsasondo en el sector del suelo urbanizable industrial.*

1. *Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Itsasondo ha iniciado la tramitación de una modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) del Municipio, referida al denominado Sector del Suelo Urbanizable Industrial.

En el marco de dicha tramitación, con fecha de 15 de mayo de 2017 el Ayuntamiento de Itsasondo presentó un escrito para que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5.2 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, esta Dirección General de Medio Ambiente determine si debe someterse a evaluación ambiental estratégica, aplicando los criterios establecidos en el anexo III del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, y previa consulta a las administraciones públicas afectadas. Acompañaba al escrito un documento en el que se recogen los objetivos de la modificación, el ámbito de aplicación y su descripción, las acciones contempladas y su localización.

Respondiendo al requerimiento del Ayuntamiento de Itsasondo, y en aplicación de lo establecido en el artículo 6.1.d de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, este órgano ambiental ha sometido la modificación al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, siguiendo para ello lo establecido en los artículos 29 al 32 de la mencionada ley.

A través de dicho procedimiento, el órgano ambiental debe realizar consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas y, a la vista del resultado de dichas consultas, emitir un informe ambiental estratégico donde se determine, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, si la modificación produce efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria o no los tiene, en los términos establecidos en el propio informe.

2. *Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en la información respecto a las características de la modificación y el ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

EK\CV GAO-I-2017-06269

— GFAko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza.

— Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.

— GFAko Errepidetako Zuzendaritza.

— GFAko Bide Azpiegituretako Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoko Ur Komisaria.

— GOIMEN. Goierri Eskualdearen Garapenerako Agentzia.

— GOIEKI. Goierriko Garapen Agentzia.

— Sasieta Mankomunitatea.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Itsas Enara ornitologia elkartea.

Halaber, dokumentazio oro eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus) publikoak oro har eta beste edozein interesdunek ingurumen arloan egokitzat jotako ekarpenak egin zitzaten.

Epe hori amaituta, eta txosten hau ematen den egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

— Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du ez dela ikusi aldaketak kultur ondarean eragina duenik.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du, kontsultara jartzen den espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, ez dutela ikusten horri buruzko txostena egin beharra dagoenik.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazi du planaren gauzatzeak ez duela eragiten inpaktu nabarmenik osasun publikoaren gainean.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) igorri duen txostenean adierazten denez, aldaketan mugatuko den Hiribide Nagusien Sistema Orokorrak eragina du Oria ibaiaren jabari publikoko zorgunean eta zaingunean; beraz, jarduketak egiteko ezinbestekoa izango da arroko erakundeei baimena eskatzea (baimena Uraren Euskal Agentzian izapidetuko da). Era berean, Sistema Orokorraren zati bat 100 urtetik 500 urtera arteko errepika aldia duen uholde arriskuko eremuan kokatzen da. Beraz, arrisku hori

— Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de carreteras de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Comisaría de Aguas de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— GOIMEN. Agencia de Desarrollo Rural del Goierri.

— GOIEKI. Agencia de Desarrollo del Goierri.

— Mancomunidad de Sasieta.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Itsas Enara ornitologia elkartea.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que no se detectan afecciones al Patrimonio Cultural derivadas de la modificación.

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que una vez analizada la documentación del expediente que se somete a consulta no consideran necesario emitir informe al respecto.

— La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco informa que la ejecución del plan no presenta impactos de consideración para la salud pública.

— La Agencia Vasca del Agua (URA) comunica en su informe que el Sistema General de Vías Urbanas que se va a delimitar en la modificación afectará a la zona de servidumbre y a la zona de policía del Dominio Publico del Río Oria, por lo que las actuaciones requerirán la preceptiva autorización del organismos de cuenca, que deberá ser tramitada en la Agencia Vasca del Agua. Así mismo, parte del Sistema General se ubica en zona inundable por las avenidas de periodo de retorno de 100 a 500 años,

kontuan hartuta, eremua garatzerakoan bete egin beharko da arroko organismoaren aipatu baimenean horri buruz ezarri daitekeena.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak, berriz, adierazi du ez dela aurreikusten proposatutako aldaketak eragin nabarmena izan dezakeenik natur ondarearen gainean –betiere lanek irauten duten bitartean eraginak saihesteko neurri prebentiboak hartzen badira–. Bestalde, uste du aldaketa aprobetxatu egin behar dela, planaren xede den eremuarekiko mugakide den Oria ibaiaren ertza lehengoratzeko jarduketak egiteko.

Erantzunak, ingurumen txosten estrategikoarekin batera, Itsasondoko Udalari bidaliko zaizkio, eta gero erantzunik jasoz gero, hori ere Udalari bidaliko zaio ahalik eta azkarren, hartara kontuan hartua izan dadin aldaketaren idazketan eta tramitazioan.

*3. Aldaketaren deskribapena.*

Aldaketaren helburua da berrantolatzea 2010ean onartu zenetik Itsasondon indarrean dagoen Hiri Antolaketako Plan Orokorrean definituta dagoen sektore industriala. HAPO onartu zenetik igaro den denboran, sektore hori ez da garatu, eta Udalak ez du uste epe ertainera garatuko denik. Bestalde, Udalak beharrezkotzat jo du sektore horren ondoan dagoen bizitokirako hiri lurzoruko bide-sarea hobetzea: sare hori kale bakar batek egituratzen du, eta kale horretarako sarbidea hobetu nahi da, sektore industrialarekiko mugan dagoen zaku-hondoa saihesteko, egungo beharrei erantzunez, eta etorkizunean sor daitezkeen behar handiagoei aurrea hartuz, hiri plangintzan aurreikusten baita eremu horretan etxebizitza berriak eraikitzea.

Beraz, aldaketa puntualaren helburua da industria sektorearen perimetroa txikitzea, libre utzitako espazioan –bizitokirako hiri lurzoruarekiko mugan– Hiribide Nagusien Sistema Orokor bat definitzeko. Sistema horretan biribilgune bat eraikiko da, bizitokirako hiri lurzorurako sarbidea artikulatzeko, eta, etorkizunean, baita sektorearen garapen industrialerako sarbidea ere.

Proposatutako sistema orokorra HAPOk egun sektore industrialaren barruan biltzen dituen lurretan kokatzen da erabat, eta haren perimetroa bide loturaren geometria ondo egokitzeko moduan definitzen da, urbanizazioaren mailetara iristeko beharrezkoak diren ezpondak ere sartuz.

Aldaketa puntualean planteatzen den biribilguneak neurri hauek izango ditu: 16 m-ko barne diametroa eta 30 m-ko kanpo diametroa. Tarteko mailan kokatuko da, Beko Kale eta Gi-2131 errepidearen artean. Errepide horretatik sartzeko, hain zuzen, deribazio perpendikular bat erabiliko da. Beko Kaletik abiatzen den bidean bereizi egiten dira bi noranzkoak, azpiegituren eremua inguratzeko. Bide-adarrak bereizita iristen dira biribilgunera, tartean irla bat utziz. Irla horretan azpiegituretarako lurzati bat sortzen da. Lurzati horretara gorantz doan bidetik sar daiteke, eta barruan aparkatzeko lekua du.

Sektore industrialaren perimetroaren barruan dauden txabolak antolaketaz kanpo mantentzen dira, eta orain hiribide nagusien sistema orokorraren barruan geratuko dira. Bide-sare berriaren, GI-2131 errepidearen eta hiri lurzoruarekiko mugaren artean geratzen den espazioa (txabolak hor daude orain) bete eta erregularizatu egiten da.

*4. Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.*

Kalifikazio aldaketa urbanizagarri gisa kalifikatutako eremu bati dagokio eta, beraz, aldaketak ez du ekartzen HAPOn sektore industrialerako aurreikusita zuena baino lurzoru okupazio handiagoa.

Antolaketan planteatzen diren aldaketek xedetzat dute biribilgune berria eta biribilguneari dagozkion loturak egin ahal izatea. Azpiegitura horiek eraikitzerakoan, obrek izan ohi dituzten eraginak sortuko dira: lur mugimenduak, zarata, lurzoruaren

por lo que teniendo en cuenta dicho riesgo, el desarrollo del ámbito deberá dar cumplimiento a lo que en su caso establezca la mencionada autorización del Organismo de cuenca.

— La Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco por su parte concluye que no es previsible que la modificación propuesta genere una afección significativa al patrimonio natural, siempre que durante las obras se adopten medidas preventivas para evitar impactos. Por otro lado, considera que debe aprovecharse la modificación para realizar actuaciones de restauración en la ribera del Río Oria colindante con la zona objeto del plan.

Las respuestas, junto con informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Itsasondo, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación de la modificación.

*3. Descripción de la modificación planteada.*

La modificación plantea la reordenación del Sector Industrial definido en el vigente Plan General de Ordenación Urbana del Municipio de Itsasondo aprobado en 2010. En el periodo transcurrido desde la aprobación del PGOU, el Sector delimitado no ha sido desarrollado y el Ayuntamiento no considera probable su ejecución a medio plazo. Por otra parte, el Ayuntamiento ve la necesidad de mejorar la vialidad del suelo urbano residencial contiguo al Sector, mejorando la accesibilidad de la única calle que lo vertebra y evitando el fondo de saco existente en el límite con el sector industrial, de acuerdo con los requerimientos actuales, y anticipando mayores requerimientos futuros, derivados de la construcción de las nuevas viviendas previstas por el planeamiento en la zona.

Por tanto, el objeto de la modificación puntual es reducir el perímetro del denominado Sector Industrial para que en el espacio liberado, lindante con el suelo urbano residencial, se defina un Sistema General de Vías Urbanas Principales, donde se construirá una rotonda que articule el acceso a la zona urbana residencial y, en un futuro, al desarrollo industrial del sector.

El sistema general propuesto queda íntegramente dentro de los terrenos actualmente incluidos en el sector industrial por el PGOU y su perímetro se define para encajar la geometría del enlace viario, incluyendo en el mismo los taludes necesarios para alcanzar los niveles de urbanización.

La rotonda planteada tendría unas dimensiones de 16m de diámetro interior y 30m de diámetro exterior y se situaría en un nivel intermedio entre la calle Beko Kale y la Gi-2131. Desde ésta última se accede con una derivación perpendicular. En el viario que parte de Beko Kale se separan los dos sentidos de circulación para rodear la zona de infraestructuras. Los ramales llegan a la rotonda separadamente, dejando una isla intermedia en la que se crea una parcela para las infraestructuras, que es accesible desde el carril ascendente y tiene espacio interior para aparcar.

Se mantienen las condiciones de fuera de ordenación de las chabolas existentes dentro del perímetro del sector industrial, que ahora quedarían dentro del sistema general de vías urbanas principales. Se rellena y regulariza el espacio comprendido entre el nuevo viario, la GI-2131 y el límite del suelo urbano, donde se sitúan ahora las chabolas.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

El cambio de calificación se refiere a un enclave calificado como urbanizable y no supone una mayor ocupación de suelo sobre la ya prevista en PGOU para el Sector Industrial.

Los cambios planeados en la ordenación se realizan con el objeto de establecer una nueva rotonda y sus correspondientes enlaces. En la construcción de dichas infraestructuras se originarán los impactos habituales –movimientos de tierra, ruido,

EK\CV GAO-I-2017-06269

okupazioa, eta abar. Behin errepidea eraikita, azpiegituraren funtzionamenduak trafiko fluxuetan ere ekarriko du aldaketa, eta baita trafikoak eragindako eragozpenetan ere, nahiz eta printzipioz ez aurreikusi eragozpen nabarmenik.

Eremua Oria ibaiaren meandro batean kokatzen da. Urbanizatuta ez badago ere, zati handi batek itxura degradatua du, dirudienez ibilgailuen joan-etorriengatik, eta materialen aldi baterako biltegi gisa ere erabili delako. Eremuaren zatirik handienean ez dago zuhaitzik, lehen aipatu diren jarduerengatik, eta Oria ibaiaren ertzean soilik ikus daiteke tamaina handiagoko landare zerrenda bat. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren txostenean esaten denez, landare zerrenda horrek ez du balio ekologiko nabarmenik, ez osaeragatik, ez heltze mailagatik. Hala ere, landare zerrenda hori da, babesteko funtzioagatik nahiz lotzekoagatik, antolatu beharreko eremuan babestu behar den ingurumen elementu nagusia, Oria ibaiaz gain noski.

Bestalde, kontuan hartu behar da aldatu nahi den eremuaren zati batek uholde arriskua duela. Beraz, jarduketa guztiak baldintzatuta egongo dira, plangintza hidrologikoak ezartzen duen erabilera araubidearekin bateragarriak izan behar baitute.

Ezin da jakin biribilgune berri honen inpaktua indarrean dagoen antolaketa mantentzearena baino handiagoa edo txikiagoa izango den, sektoreak egun ez baitu antolaketa xehakaturik. Hala ere, ez da espero inpaktu nagusiak nabarmen aldatuko direnik sektore industrialaren garapen urbanistikoan aurreikusita zeudenetatik.

Beraz, ez da uste aldaketak ingurumen eragin nabarmenak izan ditzakeenik, ez aldaketan planteatutako jarduketen ezaugarriengatik, ez ukitutako ingurunearen sentsibilitateagatik ere. Era berean, eta proposatutako aldaketaren izaera oso zehatza eta mugatua denez, eta ukitutako eremuaren azalera txikia denez, ohiko ingurumen ebaluazio estrategiko batek ez luke hobekuntza nabarmenik ekarriko espero diren ingurumen eraginen identifikazioari eta balorazioari dagokienez, ez eta planifikazioan txertatu beharreko neurri zuzentzaileei dagokienez ere.

Ondorioz, arestian esandako guztiarekin bat etorriz, 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluak xedatzen duenari jarraikiz, eta 2016ko uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak aurreikusten duena kontua hartuta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek Ingurumen Txosten Estrategiko hau ematen du:

*Lehena.* Ez egitea ingurumen ebaluazio estrategikorik honi: Itsasondoko Hiri Antolaketako Arauen aldaketa puntuala, Industriako Lurzoru Urbanizagarriko Sektoreari dagokiona. Izan ere, 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraikiz egindako azterketa kontuan hartuta, eta egindako kontsulten emaitza aintzat izanda, ondorioztatzen da ez duela aurkako eragin esanguratsurik izango ingurumenean, betiere ingurumen txosten estrategiko honetako bigarren apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

*Bigarrena.* Itsasondoko HAPOren aldaketak, Industriako Lurzoru Urbanizagarriko Sektoreari dagokionak, neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezarriko ditu:

1. Jarduketa orotarako arroko organismoaren baimena eskuratu behar da –Uraren Euskal Agentzian izapidetuko da–, eta bertan ezarritako baldintzak beteko dira.

2. Aldatutako HAPOk, hirigintzako arauen bidez, biribilgunea eta hari lotutako bideak eraikitzeko proiektuan sartu behar diren neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, haien eraikuntzatik eta funtzionamendutik eratorritako inpaktuak ahalik eta txikienak izan daitezen. Neurri horien helburua izango da, besteak beste:

ocupación de suelo, etc.– ligados a las obras. Una vez, construido el vial, su funcionamiento producirá una modificación de los flujos de tráfico y de las molestias causadas por el mismo, que, en principio, no se prevén importantes.

El ámbito se ubica en un meandro del Río Oria, que si bien no se encuentra urbanizado, presenta en un aspecto degradado en gran parte, como consecuencia aparentemente del trasiego de vehículos y de haber sido utilizado para el depósito temporal de materiales. La mayor parte del enclave está desprovisto de vegetación leñosa como consecuencia de las actividades señaladas y únicamente en la zona de la ribera del Oria aparece una banda de vegetación de mayor porte que, según señala el informe de la Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco, no presenta un valor ecológico destacable, tanto por su composición como por su escaso grado de madurez. Sin embargo, dicha banda de vegetación constituye, por su función protectora y conectora, el principal elemento ambiental a proteger del ámbito sujeto a ordenación, junto con el propio Río Oria.

Por otra parte, hay que tener en presente el carácter de zona inundable de parte del ámbito cuya ordenación se modifica, por lo que las actuaciones deberán estar condicionadas a su compatibilidad con el régimen de usos que establece la planificación hidrológica.

No es posible determinar si el impacto de esta nueva rotonda será mayor o menor que el mantenimiento de la ordenación vigente en este ámbito, ya que el sector no cuenta actualmente con una ordenación pormenorizada. Sin embargo, no es de esperar una variación significativa de los principales impactos respecto a los ya previstos en el desarrollo urbanístico del Sector Industrial.

Por tanto, no se considera que la modificación pueda tener efectos ambientales significativos, ni por las características de las actuaciones planteadas en el mismo, ni por la sensibilidad del medio afectado. Así mismo, dado el carácter concreto y limitado de la modificación propuesta y la reducida extensión del ámbito afectado, su sometimiento a una evaluación ambiental estratégica ordinaria no supondría una mejora significativa en la identificación y valoración de los impactos ambientales esperables, ni en las medidas correctoras a incorporar a la planificación.

En consecuencia, de acuerdo con todo lo anterior y según lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y, en virtud de lo previsto en el del Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, esta Dirección General de Medio Ambiente emite Informe Ambiental Estratégico en los términos siguientes:

*Primero.* No someter la modificación del PGOU de Itsasondo en el Sector del Suelo Urbanizable Industrial, a evaluación ambiental estratégica ordinaria ya que, de acuerdo con el análisis efectuado de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, y teniendo en cuenta el resultado de las consultas realizadas, se concluye que no va a producir efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se cumplan los términos que se establecen en el apartado segundo de este informe ambiental estratégico.

*Segundo.* La modificación del PGOU de Itsasondo en el Sector de Suelo Urbanizable Industrial incorporará las siguientes medidas de protección y corrección ambiental:

1. Las actuaciones deberán obtener la preceptiva autorización del organismo de cuenca, que deberá ser tramitada en la Agencia Vasca del Agua y cumplir con las condiciones que establezca la misma.

2. El PGOU modificado establecerá, a través de sus normas urbanísticas, las medidas correctoras que se deben incorporar al proyecto constructivo de la rotonda y los viales asociados, de modo que se minimicen los impactos derivados de su construcción y funcionamiento. Entre dichas medidas se deben encontrar las tendentes a:

EK\CV GAO-I-2017-06269

a) Substantzia solido edo likido kutsatzailerik ez isurtzea. Makinak uzteko, ibilgailuak garbitzeko eta, oro har, instalazio laguntzaileak jartzeko erabiliko diren eremuak hidraulikoki isolatuko dira ibilguetatik.

b) Mugitutako lurrak, landarerik gabeak, landare espezie exotiko inbaditzaileak sartzeko edo zabaltzeko bidea izan ez daitezen hartu beharreko kontrol neurriak ezartzea, baita zaintza programak ere, eta, dagokionean, landare horiek kentzea.

c) Proiektua gauzatu bitartean, obretako eremuak eta haiek eragindako ingurua (makineria-parkeak, makineriaren pasabide-eremuak, sarbide-eremuak) garbiketa-baldintza onenetan mantendu beharko dira. Obrak amaitzen direnean, garbiketa-kanpaina zorrotza egin beharko da, eta proiektuaren eraginpeko eremuak batere hondakinik gabe geratu beharko du.

d) Ingurumen zaintzako eta jarraipeneko programa bat edukitzea, aurrekontu espezifiko batekin. Programa hori proiektuan txertatuko da.

3. Eraikuntza proiektuak, gainera, ingurumena eta paisaia lehengoratzeari buruzko atal edo proiektu espezifiko bat edukiko du, obrek ukitzen dituzten lursail guztietarako.

Lehengoratze proiektu horren barruan, meandroaren zati bat okupatuko dela konpentsatzeko, eta kontuan hartuta ez dela aurreikusi sektore industriala epe ertainera garatuko denik, iradoki da sistema orokorreko jarduketak garatzen dituen proiektuak beregain hartzea sistema orokorrarekin eta sektore industrialarekin muga egiten duen ibaiertz osoko landarediaren lehengoratze ekologikoaren exekuzioa eta kostua. Lehengoratze horren helburua izango da ibaiertzean kalitate handiagoko basoa ezartzea, espezie inbaditzaileak kendu eta haltzadi kantauriarreko espezie propioak landatuz. Ibaiertzeko landarediari emango zaion zabalera aski izango da ibaia errepideen eta etorkizuneko poligono industrialaren eraginetatik –bisualak, akustikoak– babesteko eta ibaian gora nahiz behera dauden Oria Garaiko KBE zatien arteko lotura ekologikoa hobetzeko.

*Hirugarrena.* 21/2013 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen txosten estrategiko honek indarra galduko du eta dagozkion ondorioak sortzeari utziko dio Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez ere lau urteko epean proiektua onartuko ez balitz.

*Laugarrena.* Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zuzendaritza honen web orrian argitaratzea.

Donostia, 2017ko irailaren 7a.—Félix Asensio Robles, Ingurumeneko zuzendari nagusia. (6269)

a) Evitar cualquier vertido o derrame de sólidos o líquidos contaminantes. Las áreas destinadas a parques de maquinaria, limpieza de vehículos y, en general, las instalaciones auxiliares, se aislarán hidráulicamente de los cauces.

b) Adoptar medidas de control para evitar que los terrenos removidos y desprovistos de vegetación constituyan una vía de entrada o expansión para especie vegetales exóticas invasoras, incluyendo programas de vigilancia y, en su caso, erradicación.

c) Mantener durante la ejecución del proyecto, las zonas propias de las obras así como su entorno afectado (parques de maquinaria, zonas de paso de maquinaria, áreas de acceso) en las mejores condiciones de limpieza. Una vez finalizadas las obras, se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos.

d) Contar con un Programa de vigilancia y seguimiento ambiental, con un presupuesto específico que deberá ser incorporado al Proyecto.

3. El proyecto constructivo deberá incluir, así mismo, un apartado o proyecto específico de restauración ambiental y paisajística de la totalidad de los terrenos afectados por las obras.

En el marco de dicho proyecto de restauración, como medida compensatoria por la ocupación de parte del meandro, y considerando que no se prevé el desarrollo del Sector Industrial a medio plazo, se sugiere que el proyecto que desarrolle las actuaciones del sistema general, asuma el coste y la ejecución de una restauración ecológica de la vegetación a lo largo de todo el tramo de ribera colindante con el Sistema General y el Sector Industrial. El objeto de dicha restauración deberá ser el establecimiento de un bosque de ribera de mayor calidad, mediante la eliminación de las especies invasoras y la plantación de especies propias de la aliseda cantábrica. La anchura de la vegetación de ribera debería ser lo suficientemente amplia para proteger el río de los impactos –visuales, acústicos– de los viales y el futuro polígono industrial, así como para contribuir a la mejora de la conectividad ecológica entre los diferentes tramos del ZEC del Alto Oria situados aguas arriba y aguas abajo del ámbito objeto de la modificación.

*Tercero.* De acuerdo a lo establecido en el artículo 31.4 de la Ley 21/2013, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la aprobación de la modificación en el plazo máximo de cuatro años desde su publicación.

*Cuarto.* Ordenar la publicación del presente informe ambiental estratégico en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 7 de septiembre de 2017.—El director general de Medio Ambiente, Félix Asensio Robles. (6269)

EK\CV GAO-I-2017-06269